

## eskutitzak



bizkaia@egunkaria.com



Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

Erakutsi hortzak  
Espainiako faxistei!

Mikel Pagola • BILBO

Gutun hau kaleratzen danerako, Bilbon izango dira Espainia osotik etorritako ultraeskuindarrak, Franco zanaren jarraitzaile sutsuak. Moyua plazan batuko diranetako batzuk —gitxi ez, zoritxarrez— bertokoak dira, gure artean bizi diranak, baina gehienak kanpotik etorritakoak izango dira. Espainiatik. Euren asmoa argia da, eta egunotan kaleetan ipini dituen paperetan argi eta garbi adierazoten dabe: *España una, España grande* eta *España libre*. Bezperan Donostian egondakoak izango ziran asko eta asko. Danak, beharbada. Azken baten manifestazino bien helburua bardina da: Euskal Herria ukatu eta abertzaletasuna ezabatu.

Zein izango da horren aurrean geure burua abertzale lez aitortzen dogun guztiok hartuko dogun jarrerea? Irrikitan nago ikusteko ea zer egingo daben irailaren 14an *Gora Euskal Herria!* oihukatu gura gendualako egurtu ginduezanek. Horixe jakin gura neuke: gaur non ipini-ko diran, eta nori emongo deitsuen egurra. Ez daukat ahazteko eta, orain urte bi edo, ditxosozko Inestrillas etorri zanean abertzaleok jipoitu ginduazela Santimiñeko futbol zelaia inguruetan.

Irailaren 14koa karua urten jakun: lagun bati begia atara eutsien, beste bi gartzelan sartu zituen, askok eta askok egurra jaso eta ur kimikoagaz blaitu ginduezan... Baina domekakoa karuagoa izan leiteke, barriro be ustez abertzale diranek horixe bera errepiketan badabe, faxisten bidea errazteko.

Domekan zu, irakurle hori, gutun hau irakurten zagozala, agian Tuteran izango naz. Hori izan leitekela faxistei mezpretxu egin, eta euskereari eta Euskal Herriari gure maitasuna aitortzeko modurik eraginkorrena. Baina akaso ba-

**OHARRA:** Ahalik eta eritxi gehienek tokia izan daien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun honeetan. Idatzi dauanaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, zuzendaritzak bere esku dau horretarako eskubidea. Erdaraz ailegetan diran gutunak ez dira argitaratuko.

rruan daukadan amorrua nagusituko jat eta han izango naz, faxista kumeei, eta ez horren kumeei, merezi daben *ongietorria* egiten. Tuteran edo Bilbon, herri honen zapaltzaileek hortzak erakusten, beti be.

Apurtuarte taldeak zelai  
barik jarraitzen dauJ.I. Bilbao (Zuzendaritzako Batzaren  
izenean) • ERANDIO

San Jose Artesano deritxan zelaian asterik aste gero eta prekarioagoa da egoerea. Ahalegin fisikoari jagokonez, gure taldeetako jokalaria gorriak ikusten dagoz, zelai horretan hiru bider entrenau behar izaten dabe eta. Sondika, Erandio eta Leioako taldeen borondate eta jarraira onari esker, mailegutzan jokatzen gagoz. Horixe eskertu gura deitsagu idatzi honen bidez.

Arinago esandako guztiak horrela izanda be, harrituta izten gaitu oraindino, Erandioko Udalak egoera horren aurrean Udaleko Futbol Zelaia obren amaierara azkartzeko erakusten dauen geldokeria eta ardurabakokeriak.

Argi itxi gura dogu, barriro be, ziria sartu deuskuela eta konponbideak gero kotzen, epe bat orain eta gero bestea agindu deuskuenean (abuztuaren 19 eta 26 bitartean; irailaren 2 eta 11 bitartean, eta azkenengoan emon euskuen data urriaren 9a izan zan). Ez dabe sekula bete emondako eperik.

Taldearen Zuzendaritzako Batzeak

uste dau, 76 urte luzeko historia daukan taldea (ez daigun ahaztu Bizkaian dagoan talderik zaharrena dana geurea), ezin dala horren errespetu eta begirune gitxiagaz tratatua izan, eta horixe da Udalak egiten dauena. Gizon eta andra horrek ez dira konturetan, ganean daukagula negua eta taldeak ezin izango dauela hemendik gitxira gaur egungo San Jose Artesanoko zelaian entrenau be egin.

Apurtuarte taldeko Zuzendari Batza osotzen dogun guztiok oso arduratuta gagoz epe laburrean gertatu leitekezan guztiekin, pentsetan dogulako horreek guztiorreek taldearen etorkizuna kolokan ipini leikiela beldur garelako.

## Txantxangorria

Izaskun Gaztañaga • BILBO

Lehengo baten, San Anton zubia zeharkatzerakoan, beharginak ikusi nituan elizaren alboko eraikinan lanean. *Kontxo*, pentsau neban, *hasi ditue Hontza zentroa berton ipinteko obrak*. Jakina danez, urtea amaitzen danerako, kale gorrian bizi diran drogazaleek bertan izango dabe aterpea gaez, eta kendu egin beharko dabe Urazurrutia kaian dagoan egoitza. Tristeak, eta gogorrak, dira aldaketea egiteko izan diran arrazoiak, nahiz eta erabiltzaileentzako eskuragarriago eta egokiagoa izango dan, duda barik, egoitza barria. Bilbotarrok gatx izango dogu hor gertatu diranak ahaztea.

Baina lagun batek esaten dauen lez, *ez dagoz txarto ondo amaitzen diranak*. Berak Bilbora azken urteotan etorri diran etorkinei laguntasuna emoten dabil, boluntario lez, eta askotan aitatu deustaz zein larriak diran herritar horreek daukiezan preminak. Horrexegaitik, pentsetan dot, Urazurrutian hutsik geratuko dan zentroa erabilgarria izan leitekela jente horri laguntasuna emoteko.

Izan be, drogazaleak ez diran arren, hareen antzeko preminak izaten ditue

askotan. Lagun horrek dinoanez, etorkin askok euren burua eta arropak garbitzeko leku baten preminea izaten dabe, eta horrexegaitik joaten dira asko eta asko Hiesaren kontrako Batzordeak Bailen kalean daukan eguneko zentrorra.

Hontza izeneko horretan dutxak dagoz, bai eta garbigailuak be. Zauriak osotzeko edo atsedena hartzeko leku nahikorik be badauka. Toki aproposa izan leiteke hori oraindino etxerik topau ez daben etorkinei eguneko babesa emoteko. Zergaitik ez? Horixe da gutun honen bidez Caritas alkarteko lagunei proposatu gura deustadana: Hontza gauekoa San Anton elizara eroaten dabenean, eguneko Txantxangorri zentroa ipintea Urazurrutiako egoitzan. Etorkinek eskertuko dabe, eta Zamakola kaleko auzokoentzat be oraingo egoerea baino na-saigarria izango da. Danak pozik.

Gazte baserritarren  
zorigaitzoko patua

Itziar Garai • GERNIKA

Joan dan domekan gazte baserritarren inguruko erreportaje eta alkarrizketa irakurri genduan berton, EGUNKARIA-ko *Bizkaia* gehigarrian. Komunikabide gehienak, danak ez esateagaitik, kaletarren eskuetan dagoz, eta gitxitan izaten dogu holakoak irakurtzeko aukerea. Eskerrak, halandaze, erreportajea egin ebenei. Aitite-amamak baserritarrak izan genduzanok narrutan ikusi dogu baserriaren eta euren bizimoduaren gain-beherea. Gurasoak kalera joatera behartuta egon ziran, eta guk gazteok gura, eta ezin gara bizi, gero eta hondatuago dagoan baserriari begira. Askotan aitatzten da dirua behar dala produkzioari ekiteko, baina nire ustez hori baino beharrezkoagoa da baserriaren aldeko apostua hartuko daben herritarrek eta, batez be, erakundeak lortzea. Borondate barik, ez dago ezer egiterik.

## asfaltoko kronikak

Arkaitz Estiballes

## Zugaz poteoan

**B**ost bat aste badira alkar ezagutzen dogula, bost aste zutabe hau irakurten dozunetik, irakurten badozu! Ez badozu irakurten, zer esango deustut? Zaharrak barri txoko honetatik. Ez deustut guzurrik esango, ez, aurreko asteetan idatzi dot Bilboko obrez, edo er-tzaintzaz, edo inor konturatu gabe hiltzen diran auzokoez, edo...

Ez deustut guzurrik esango idazten dodanak interes gitxi bizten dauela esaten badeustut; ez deustut guzurrik esango hasieran zutabe hau idaztea gatxa egin jatala esaten badeustut, baina sinestu eizu gaurko artikulua idaztea ez jatala gatxa egin. Honaino ez dot gauza handirik esan, baina guzurrik be ez. Asfaltoko kronikak idazteko eskatu eustenean, ez neban pen-tsauko horrenbesteko buruko minik

emongo eustanik. Ez da erreza egunkarietan agertzen ez diran barrien ganean idaztea. Ahalegindu, ahalegindu naz, eta lasai, ahaleginduko naz. Hori bai, orain arte ez deustut guzurrik esan; eta ez deustut guzurrik esango, aste honetan ez nazela ahalegindu esaten badeustut. Artikulu hau atzo idatzi behar neban, ganoraz eta txukun, ganera gairik ez jatan falta, baina etxera joateko nintzanean zugaz alkartu nintzan. Auzoan alkartu nintzan zugaz, euria egiten dauenean, estoldek gainezka egiten daben auzo horretan, izenbako auzoan, Santos Juanesetik harago, Bilboko

Udalaren deserrian. Zuk, milhoja bat ekarri zenduan, zeuk eginekoea. Nik berbetarako gogoia ekarri neban. Falta zan hirugarren laguna heldu arte, luze jardun ginan berbetan. Hitz egin genduan maitasunaz, hitz egin genduan politikaz, hitz egin genduan Garzonen autoaz eta txarto aparkautan neukan autoaz, eta zelan ez, hitz egin genduan iraganaz eta geroaz, eskuetan garagardo baten oraina genduala. Etxera joan behar nebala esan neutsun, zertan eta inork irakurriko ez dauen artikulu hau idazten. Garagardo bat nahikoa izan zan tabernan geldituarazoteko.

Lehenengo garagardoa laster bihurtu zan bigarren, hirugarren, laugarren, hamakaggggarrrrren... eta alaitasunaren alegrian, artikulu hau zeuri eskeiniko neutsula berba emon neutsun. Nori eta zeuri, ezer egin ez dozun horri. Ezer be ez, geugaz ez dagozan lagunakaz gogoratzea baino; ezer be ez, goizaldean jagi eta pastelginen joatea baino; eta ezer be ez, hamabigarren garagardoa ordaintzea baino. Halanda be, ez da gitxi egiten dozuna, eta horregaitik idazten deustut zeuri; zeuri eta zeure moduan, lanetik lur jota urten, eta lagunakaz honetaz eta haretaz berba egiteko astia hartzen dozuenoi, arrotz jakuzan txokoetan eritxi kritikoa sortzeko gai zarienoi. Hurrengo barikuan be zeugaz alkartzen banaz, hamalagarren garagardoa neure kontu.